

ZENBAT BURU
Martin Dominguez

ERREPORTAJEA
Eskia,
elurretako kirola

UDALETXETIK
Urtarrilaren 29ko
plenoa

GEHIGARRIA
Kale zulotik
baserrira

BERBETAN
Aitor iturrikastillo,
Gurutzeko Gorriko
kidea

KULTURA
Elgoibarko Izarra
Idaz Lehiaketen sari
banaketa

BARREN

1999ko otsailaren 5a
VII. urtea - 265. zkia

E I G O I B A R K O A S T E K A R I A

Elur gainean irristatuz



"Elurra mendian, haize hotza herrian"

Elgoibarko Herri Eskola



zatoz, zatoz,

gure eskolara

guztiona,

herriarena,

zeurea

Aurrematrikula:
otsailaren 1etik 12ra arte

Erakusketa: otsailaren 12tik 21era • Lekua: Kultur Etxean

Eusko Jaurlaritza

Herri. Eskola · Tel: 943 74 08 79 -E-maila: info.elgoibar@educanet.net

ELGOIBARKO INSTITUTUA

Gure erronka

KALITATEA



"Mens sana in corpore sano"
aukerako tailerretan



Instalakuntza egokiak
eta ondo hornituak



Hizkuntza laborategirik aurreratuenak:
ingeleza, frantsesa, alemaniera



Jantokia subentzionatuta
(280 pta. eguneko) eta garraioa doan

Aurrematrikula:
otsailaren 1etik 12ra arte

Erakusketa: otsailaren 1etik 21era • Lekua: Kultur Etxean

Arreiture Institutua San Roke auzoa, 11
Tel: 943 74 02 67- 74 18 99 Faxe: 943 74 40 75
E-maila: ifp.elgoibar@eas.servicom.es

Lekuz aldatu gara!!!

Softlan

desarrollos informaticos
analisis & programazioa



Bezero estimatuak:

Iritsi zaigu guri ere aldatzeko ordua. Orain bulego handiago eta modernoagoan aurkituko gaituzu, zerbitzu hobea eskaintzeko.

Tarte hau aprobetxatuz, **martxoaren 1 era arte deskontu bereziak** izango dituzuela jakinarazi nahi dizuegu edozein ekipo periferiko edo kontsumible eskuratzerakoan.

Apunta ezazu gure helbide berria:

Softlan, analisis & programazioa

Antonio Arrillaga kalea, 1
20870 Elgoibar GIPUZKOA

Tel: 943 74 81 05

Faxa: 943 74 82 28

E-maila: desarrollo@softlan.com

Eskerrik asko zuen konfidantzarengatik.

Txirringak non?



MARTIN DOMINGUEZ

BARRENEk nahi dudan gaiari buruz hitz egiteko aukera eman dit eta aukeratu dudana denoi interesatzen zaigu, era batera edo bestera guztiok inplikatzeko gaituelako.

Euskal Herri osoan askok aukeratzen dugu txirringa edo bizikleta gure egoera fisikoa hobetzeko, pisua kontrolatzeko, laneko estresa kentzeko etab. Baina arazoak errepidera irteten garenean hasten dira, denek ez baitute ulertzen guk ere errepidea erabil dezakegula. Askotan, gidariak ez dituzte trafiko arauak betetzen gurekin; nahi gabe egiten dutela pentsatu nahi dut, baina gu gara zoritxarrez ondorioak sofritzen ditugunak. Ez du ezertarako balio, zerbait pasatu ondoren, familiakoari edo lagunari 'ez dut ikusi', 'uste nuen denbora emango zidala' etab. esateak.

Orain batzuek pentsatuko duzue ez naizela partziala, guk ere ez baititugu errespetatzen arauak, batez ere bata bestearen ondoan joatea. Nik ere, beste txirringulari askok bezala, autoa daukat eta esan dezaket bata bestearen ondoan joatea (kasu gehienetan) askoz segurua dela txirringularientzat, auto-gidariak bizikleta ikustean abiadura gutxitzen baitute. Trafiko arau asko normalean ez dira errespetatzen. Adibidez, 1,5 metro laga behar dira aurreratzeko (kamioiak 2 metro), bihurguneetan ezin daiteke aurreratu, aurrez aurre ere ez (azken arau hau ez errespetatzeagatik idazten ari den honen 10 egun pasatu zituen ospitalean eta beste 30 erreabilitazioan). Gai honi buruz pare bat egunez gelditu gabe hitz egingo nuke baina ez daukat lekurik, eta gogorik ere ez.

Denoi gustatuko litzaiguke konponbidea

aurkitzea, konponbide serioa, noski. Zeren eta ez baita serioa batzuek esaten dutena, 'joan zaitezte mendira bizikletan ibiltzera', alegia.

Mendiko bizikletarekin ibiltzen garenok badakigu mendian lelokeriak esaten ikusten ditugun batzuk gidariak direla. Zer lelokeria? 'belarraren egoerari kalte egiten diogula', 'animaliak beldurtzen ditugula', 'ezin leikela mendian pasiatu',... Badaude gehiago, baina BARRENEk ere irakurtzen dute. Nik ez dut uste guk egiten dugun kaltea (kalterik egiten badugu behintzat), hainbestearainokoa denik eta bai, ordea, guri egiten digutena.

Gainera, uztail aldera pertsona horiek lagunekin elkartzen dira euren soziedadean Olano, Zarra etab. animatzeko,... Zer pentsatzen duzue, hauek, edo Marinok eta Indurainek bere garaian, euren etxeko sukaldeetan entrenatzen zutela ala?

Askotan, (askotan ez, batzuetan), txirringulari ospetsu horiek telebistan agertu izan dira nik esaten dihardudana edo antzerakoa adierazten. Zoritxarrez, beti hitz egiten da txirringulari ospetsu bat hiltzen denean.

Gu, gehienak, ez gara profesionalak, ezta ospetsuak ere. Ez dugu xentimorik irabazten, baina pertsonak gara eta errespetu piska bat merezi dugu.

Altuago esan daiteke, baina argiago ez dut uste. Urtero jende asko hiltzen da arazo hau dela-eta; familiakoak, lagunak edo ezezagunak izan, berdin zait. Hitz hauei esker txirringulariekin apur bat toleranteagoak izatea lortzen badut, pauso handi bat behintzat emango dugu; konponbidea ez baitago arauetan, pertsonen esku baizik.

Atal hau ez da BARRENEk editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barreak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOISAR
 w! 943 74 41 12
 Publizitatea:
 72 943 74 37 04
 Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topaguneajalgi.com

| | |
|----------------------|---|
| AnenAntozAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZLIZENDARIA | Ainhoa Lodoso |
| KAZETABIAK | Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro |
| PUBLIZITATEA | Maitane Cid |
| MAKETATZAILEA | Bea Ansola |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORATZAILEAK | Irati Agirreazaldegia, Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnailz Gorriti, Ion Gurrubcaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, fñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo. |
| AZALEKO ESALDIA | Gotzon Garateren liburutik |
| BANAKETA ARDURADLINA | Imanol Larrañaga |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1139-1855 |

Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako
 Kultura Sailak
 eta FDru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.



fundazioa
 fundaciOn

44 DANOBAT

GOITI
 GRUPO DANOBAT

Argitu dira zalantialdi

BARREn azkenengoz idatzi nuenean, honela amaitu nuen nire eskutitza: "*Vascos si, ETA no* zioten ETAk Miguel Anjel Blanco hil zuenean. ETAk esan du NO, ikusiko dugu orain besteeK VASCOS SI bakarrik onartuko duten ala EUSKALDUNAK BAI ere ametitzeko prest dauden".

Argitu dira nire zalantza guztiak! Euskaldunok gure etorkizuna eraikitzeke elkartzen eta egituratzen hasi garenean (bazen ordua!), txakurrak baino amorru handiagoarekin salto egin digute lepora. Bai, lepora diot, hor egiten baitu min gehien. Lizarragaraziko akordioa eta Udalerrien Biltzarra nahikoa izan dira Espainian euskaldunok zenbat maite gaituzten ikusteko. Hatere, maitasun bitxia da hauek euskaldunekiko dutena. Izan ere, begibistan da ezin gaituztela ikusi ere egin baina, hala ere, euren ondoan eduki nahi gaituzte.

Otsailak 2, asteartea, Vicente Calderon futbol-zelaia. Minutu bateko isilunea Aitor Zabaleta zenaren omezez. Isiltasunaren partez batzuen ohivak eta bestean txistu-hotsak izan ziren nagusi. Partiduan, berriz, *vascos hijos de puta'izan* zen eskaini ziguten lorarik ederrena. Lekutan geratu da zorioneko *vasco si, ETA no*.

Baina denak ez dira berdinak! Konforme, badakit euskaldunok estimatzen gaituenik ere izango dela Espainia aldean, baina hauen ahotsak ez dira guregana iristen, ez behintzat kontrakoen maiztasunarekin eta indarrarekin.

Beraz, eta amaitzeko, lerro hauen bidez Euskal Herria eta euskaldunok berregituratzeko ahaleginak eta inizatibak txalotu eta babestu nahi ditut. Ea XXI. mendean euroa baino zerbait interesgarriagorik izaten dugun gure artean komentatzeko.

L.J.I.

BARREn ez du bere gain hartzen 1RITZIA eta ESKUTITZAK atetetan adierazitakoen erantzukizunik. Eskulitz gutiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauekiarizea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



111,11111

- Leku-Eder inguruko bizilagun batzuek eskakizun bat egin nahi diote txoriei jaten ematen dien emakume bati. "Ogi apurrrak belarretara botaz gero, txoria jakatera joaten direnean, ogiai gain belarra ere jaten dute eta berdeguneak belarrik gabe ari dira geratzen. Askok eskatzea ez balitz, ogia beste leku batera botatzea eskatu nahi dizugu".

- Hdiritar batek kexa hau bidali digu: "Santa Ana kaleko errotondatik Konporta bitarterako kalea asfaltatu gabe dago. Errotonda egin zuteanean inguru guztia asfaltatu zuten baina zati hori ez. Honez gain,

errotondan dagoen ispilua aspalditik dago apurtuta eta errotondatik irteterakoan ez, da ikusten autorik datorren ala ez".

- Erretxindiko bizilagun batek aditzera eman nahi du azken aldian aparkatzeko lekurik gabe geratzen ari direla. "Arregitorreko bizilagun askok Erretxindin uzten dituzte euren autoak eta bertan bizi garenok gure autoak aparkatzeko lekurik ez daukagu. Arazoak konponbide zaila daukanez, Udalak zerbat egin beharko lukeela deritzot, aparkaleku gehiago sortu, esaterako".

• TMO11

- Elgoibartar batek Maite Barruetabeña txalotu nahi du, "Pirena txakur-lasterketan bikain dabilelak". Atzerritar askori demaseko egurra eman die eta benetan meritu handia du Maite egiten ari denak. Aupa eta segi aurrera!"

- Urasandiko gazte batek Udak Kirol Patronatua txalotu nahi du patinetan ibiltzeko pista jarri duelako. "Aspadi agindu ziguten pista jarriko zutela eta, azkenean, ipini dute. Mila esker gure eskakizuna aintzat hartzeagatik".

BAI, ESAN?



**Sabino
Zenarruzabeitia**
LABeko kidea

Euskararen Kontseiluak antolatuta, 'Lanordu bat akordioaren alde: Bai Euskarari' lemapeko kanpainaren helburua langileek lanordu bat euskararentzat eskaintzea da. Kanpainaren bidez, laster martxan jarriko den plan estrategikoa finantzatzeko dirua lortu nahi dute. Langileei buruz ari garenez, oraingoan sindikatuak dira kanpainaren ardura bere gain hartu dutenak. Orain arte egin dutenaz eta kanpainaren onarpenaz jakiteko deitu diogu LAB sindikatuko Sabino Zenarruzabeitiari.

- Langile bakoitzak lanordu bati dagokion dirua euskarari eskaintzea da helburua, ezta? Bai, guk pentsatzen dugu langileak ere gizarte honetako elementu inportanteak direla. Langileei dagokienean, Kontseiluak jarri duen konpromezua begi onez ikusten dugu. Horregatik eskainiko zaio Kontseiluari bete honetako ordubeteko lana.

Eta enpresarioak langileek ematen duten beste eman behar al du? Bai, Kontseilukoek zehazten duten moduan, langileek ipintzen duten diru kopuru bera jarri beharko dute enpresarietara.

- Zein enpresa eta langilerengana jo duzue? Denetara. Kooperatibak, enpresa handiak, irakasleak..., langile munduko ate denak jotzeko asmoa dago.

- Zein sindikatu ari zarete kanpaina hau eragiten? Momentuz, ELA eta LAB. Ostiralean (gaur) hain zuzen, Deba Garaiko eta Deba Beheko ordezkariak Kontseiluko partaide batekin biltzekoak gara Eibarko Armeria eskolan eta proposamen hau aurrera ateratzeko lan eredu aukeratzen saiatuko gara.

- Zelako harrera izan du kanpainak? Elgoibarren zenbat diru biltzea espero duzue? Langile munduan ohiartzun gutxi izan du, nahiz eta komunikabideetan propaganda handia egin den. Kanpaina zertan datzan zehaztea falta da eta langileek izan behar duten inplikazioa azaltzea. Langileen artean asanbladak egitea falta da, kanpainaren inguruko informazioa jaso dezaten. Abiapuntua ostiraleko bilera izango da. Bestalde, kanpaina honetan partehartzea borondatezkoa izango denez, ezin daiteke aurrez jakin zenbat diru bilduko dugun, baina langileen aldetik inplikazio handia espero dugu denok.

525^{11,4}

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa


San Frantzisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89




Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabaiaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 z• 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



Xalba Astigarraga

Aldapan behera eskietan

Aldapan behera eskietan ipinoa da eskiatzeko erarik tradizionalena eta gehien praktikatzen dena. Xalba Astigarragak 16 urte daramatza eskiatzen. San Anton jai batzuetan joan zen estrainekoz kuadrilarekin, "ezer jakin gabe, eskixak alkilau eta aldapan behera hasi ginan, beIdurrik gabe". Hori bai, behin eta berriz erori eta makina bat kolpe hartu eta gero ikasi zuen Xalbak eski gainean oreka mantentzen eta pistatik goxo-goxo jaisten. "Hasi nitzanian, lagun batzuk oso ausartak zian eta kriston beLozidadia hartzen zaben aldapan behera. Hola amaitzen zaben, gorputz guztia belztuta!". Gehien kostatu zitzaiona gorputza atzera bota eta belauinak aurreratuta eskiatzea izan zen, "baina ikasten dozunian, asko disfrutatzen dozu". Bere kontura hasi eta gerora, Al-dundiak antolatutako irteeretan hartu zuen parte, "ostiraletik domekara juten ginan eta monitore batekin ikasten genduan eskiatzen. Hala ere, beti fijatzen zera ingurukuak zela itxen daben eta meioratzen ahalegintzen zera. Horregatik, konpetizivak egoten dianian gustura egoten naiz ikustei".

"Eskiatzea ez da jendeak uste duen bezain garestia"

Garai batean eskiatzea ez zegoen edonoren esku, gaur egun, aldiz, askok eta askok egiten dute elurretara eskapadabwa. Xalbarekin hitzetan, "eskia kirol garestia dela uste du jende askok baina hori oso erlatiboa da. Desberdina da hotelean edo aterpetxean lo egin eta jattetxean bazkaltzea edo bokadillua jatea. Gainera, batzuek nahia gote beste gauza batzuetan gutxi gatu eta neguan, eskiatzeko aukera izatia". Xalba emaztearekin eta bi alabekin joaten da eskiatzera, "urtean hiru edo lau bider juten gera. Formigalen ibiltzen geran arren, Luz gehixo gustatzen jaku, ze askoz jende gitxio egoten da. Formigalen ordubeteko ilarak egoten dia pistara ixotzeko. Larregi izaten Luz-en, aldiz, askoz lasaixo zabiz. Hori bai, Jacan gero oso giro politxa egoten da, jende asko eta demaseko ambientia. Frantzia, berriz, oso lasaixa da eta gaueko 21:00etarako ixaxa dana dao itxita. Ni gustura ibiltzen naiz baina hori bakoitzen gustuen arabera da". Xalbari gehien gustatzen zaiona da, pistetara igo eta, "han goitxik ikusten dan paisajia begiratzea, elur zurixak dakan argitxasuna eta aire garbixan arnasia bartzia". Ez da gutxi!

Elur gza

Negua badoa. Uste baino lehen, martxoa etorriko zaigu eta berarekin batera loreak, eguzkia eta epeltasuna. Egia esan, aurtengo negua ez da gogorregia izan eta elurrik ere apenas ikusi dugu bazterretan. Hala ere, inguruetako mendi gailurrak zuritu izan dira noizean behin eta eskia gustuko dutenek badute norajo asteburuetan. Garai batean

Aparrik gabeko surfa


Ekaitz Baskaran da orri hauetara ekarri dugun gazteena. Gaztetasunak ematen duen ausardiak bultzatuta beharbada, urtebete inguru darama snowboard deitzen dena praktikatzen. Ekaitzek 16 urte zituen eskiak lehenengo aldiz jantzi zituenean, "fondo eta alpino itxera jun nitzan lehen gusekin baina gero, denbora luzian egon nitzan berriz jun be". Alpinoari heldu zion urte batzuk geroago, "fondoko eskixa ez jata gustatzen, askoz ejerzizio fisiko gehixo itxen dozu. Alpinua, aldiz, aldapak jaistia da, komoduaua eta sentsazio hobia nerezat". Hala ere, aurtan snowboard deritzana probatu du eta aukeratzekotan ez du batere zalantzarik, "danen artian politxena tabliakin eskiatzia da". Ekaitzek badu lagun bat (Ekaitz Isasi) guztiz trebea dena elurretan oholarekin ibiltzen, "saltuak eta alrian bueltak ematen badaki" eta honek irakatsi die kuadrilakoei snowboard-a nola egin behar den. Nola balt esateko, surfa egitea bezala da, baina itsasoko olatuetan izan beharrean, elurretan irristatzen da

"Snowboard-a erarik ikus"



IRCOR irristatuz

gutxi batzuek praktikatzen zuten kirola bazen ere, gaur egun ia denok jantzi izan ditugu noizbait eskiak. Gainera, telesila gainean pistara igo eta aldapa luzeak jaisteaz gain, beste era asko daude elurretan ibiltzeko. Esate baterako, fondoko eskia eta snowboard deritzan modalitateet, azken hau moda-modakoa.



Rosa Mari Mata

ohola. "Pistetara ixo eta handik bajatzen zera tabliakin, alpinuan bezela baina beste era batera. Oinak tabliari lotuta dixez eta ez dia behin ere soltatzen". Teknika ikastea ez da batera erraza. "Hasieran desesperau itxen zera, ze egun guztia zaude lurrian, baina gustua hartzen diozu eta gero eta erretzo zabiz". Aspaldian modan dagoen kirola da eta gero eta jende gehiago ikusten da ohola hartuta elur gainean, "batez ere Candanchu inguruan asko ibiltzen gera. Frantzia ez dao hain ondo ikusitxa, ganberro famia dake eskiatzailien artian".

eskiatzeko rixena"

Ikusgarria denik behintzat ezin ukatu. Oinak ohol bati lotuta jauzi erraldoiak eman eta airean bira egiteak sentsazio berezia sortuko duela ziur gaude. Hori egiteko ausardia dutenek ez dute medito gutxi. Ekaitzen helburua, "tablia motxilan sartu, mendira ixo eta handik tabla gainean bajatzia da. Hori bai dala gozada bat!".



Erdian, Ekaitz Baskaran.

Baso arteko kirola


rieste elgoibartar askok bezala, Rosa Matak pisua erosi zuen Jacan orain dela 8 urte inguru. Seme-alabak txikiak ziren eta astebukaerak aprobetxatzen zituzten hara joateko. Rosak esan digunez, "Candanchu gertu zauala eta, umiak eski alpinua itxen hasi zian neguan. Guk ere probau genduan baina, egixa esan, neri ez jatan gehixegi gustau". Hala ere, egun batean elgoibartar talde batekin elkartu ziren. Hauek fondoko eskia egiteko asmoa zuten eta Rosa eta senarra ere animatu ziren.

"Gure kontura hasi ginan eta asko gustau zitzaigun. Gainera, alpinua baino segurua zala iruditu jakun eta horregatik jarraitxu genduan". Rosak azaldu digunez, fondoa egiteko eskiak alpinokoak baino estuagoak dira eta oina atzetik aske doa. Makilak ere luzeagoak dira. "Nik asko disfrutatzen dot pistan gora eskixekin jun eta gero handik bajatzen. Hiru pista egoten dia, errezenetik zailenera. Ni erdikuan ibiltzen naiz, ze bestia ixa profesionalentzat da". Kirola egitera ohituta dago Rosa, "normalian saltaka itxen dot eta horrek beti laguntzen dizu asko, batez ere resistentzian. Hala ere, fondua itxen doten bakoitzian agujetaz beteta egoten naiz

hurrengo egunian". Izan ere, alpinuan, telesilan igo eta gero, eski gainean irristatuz jaisten da. Fondoan, berriz, pistak eski gainean igo behar dira eta gero, aztarna deitzen diren bideskak jarraituz jaitsi, "batez ere besoentzat eta izterrentzat oso ariketa gogorra da. Pausoz pauso igotzen zara eskixak jantzitxa eta bajau ere hola xe. Nik nere kontura ikasi dot baina badaukat gogua monitore batekin gehixo ikas-teko, batez ere eskixekin irristatzen, ze

"Fondoko eskian, ariketa fisiko handia egiten da"

ondiokan ez dot oso ondo kontrolatzen hori". Taldean edo bakarrik joanda berdin disfrutatzen du Rosak, "neri asko gustatu izan jata betidanik mendixan ibiltzia eta fondoko eskixekin aukera hori dakat. Lasai-lasai ibiltzen naiz, eguneroko gauzetatik deskonektata, nere gauzak pentsatzen eta hori dana paisaje zoragarriak ikusten, zuritxutako pinu artian...". Rosak atera dio etekinik Jacako etxeari, "erosi beffitan asko juten ginan. Gero, seme-alabak hazi ein zian eta garai bat egon zan geldi, baina oin berriz hasi gera juten. Nik fondoko eskixa itxen dot, alabek alpinua eta semia ointxe hasi da snowboard deitzen dan modalidade berri horrekin. Gustura ibiltzen gera danok!".



**TXAKUR BATEK UME BAT
HIL DU MALLORCAN**

**ZeP egin beharko
litzateke txakur
arriskutsuekin?**



JOSE GONZALEZ
71 urte, jubilatua

Txakurak lotuta joan behar dira eta muturrekoarekin. Animalia hiltzea gehiegizkoa da, ez baita bere buruaren jabe. Nola hezitzen duzun, halakoa izango da.



PEIO ALFARO
40 urte, udaltzaina

Txakurra nola zaindu jakin behar du jabeak. Honez gain, muturrekoa eta lepo-koa erabili behar dira, eta arriskutsuek batez ere, asegunia izan beharko luke.



OSCAR PEREZ
24 urte, langabetua

Posible balitz zenbait arraza desagertarazi egin beharko lirateke edo kasu batzuetan txakurra akabatu. Gainontzean, txakurra lotuta eraman behar da.



ITZIAR KONDE
74 urte, etxeoandrea

Segun eta ze edukazino hartuta daon, hola erantzuten dau txakurak. Txakurra gaizki erakutsitxa badao erruaren parte bat jabilana da.



ADELA CABANILLAS
42 urte, etxeoandrea

Ondo prestatutako pertsonenek bakarrik eduki beharko litzukete. Ez naiz akabatzearen aldekoa. Etxean txakurak dauzkagu eta ez dut inoiz arazorik izan.



ARRATE DE LA HORRA
41 urte, etxeoandrea

Guk hiru txakur dauzkagu eta ez dute ezer egiten. Arriskutsuak badira, heziketa ezin daiteke edonola-koa izan. Onena txakur arriskutsurik ez izatea da.

**OLASO
TABERNA**

**-EGILINEKO MENUFIK-
-GRUEZ-**

Ostirat eta larunbatetan
enkarguzko afariak

OROUTHIR:
Rstelehenetik usbralera 7:00-22:38
Iarenhatelart 9:00bk aurrera

Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85

EUSKO JAURLARITZA
HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Otaola hiribidea, 29 EIBAR

**1998/99 KURTSORAKO
MATRIKULA LIBREA**

Sobre jasotzea otsailaren letik 19ra izango da.
N.A.N.a BEHARREZKOA DA
Informazio gehiago: 943 20 06 18

F.12r1".Or

MEKAN 138M

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

POL-PO

T ABERNA

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74



Kultur errota



Kultur errota



Kultur errota

J. A Urbeltz-en

Dantza Ganbarara



Dantza herrikoiak ikasteko eta dantzatzeko aukera ederra!1

Otsailak 12, ostirala
Kultur Etxeko SOTOAN
Gaueko 10:30ean



Topagunea



Elgoibarko Izarro K.E.

Elgoibarko Udala



Kultur errota



Kultur errota



Kultur errota

• Jaime Arrese elgoibartarra, Ibarretxe lehendakariaren abelkulari

Komunikabideetan agertutako berri batean esaten denez, Jaime Arrese kazetari elgoibartarra Ibarretxe lehendakariaren aholkulari pertsonala izendatu dute. Jaime Arrese Araolaza Elgoibarren jaio zen orain dela 35 urte. Kazetaritzan eta Zuzenbidean litzentziatua da eta Euskadi Irratian eta Radio Euskadin aritu da lanean, eta besteak beste, albistegietako burua izan da. Azken aldian, Nafarroako Unibertsitatean irakasle lanak ere egin ditu, 'Etika eta Korninukabideak' ikasgai irakasle moduan. Arrese berehala hasiko da Juan Jose Ibarretxeren aholkularitzako bulegoan lanean.

• Ikasile ingelesan bisita

Elgoibarko Ikastolak Erresuma Batuko Litherland High Schooleko ikasleen bisita izango du, bi eskolen arteko elkartrukearen barruan. Ikastolako 45 ikasle urriaren 10etik 25era bitartean egon ziren Liverpool ondoko herri honetan. Ikasle ingelesak otsailaren 7tik 20ra bitartean egongo dira gure artean eta elkartrukearen helburuak linguistikoak eta kulturak izango dira. Gainera, 14 eta 16 urte bitarteko ikasleak izanik, esperientzia hau aintzindaria da adin hauetan, elkartrukeak normalean 18 urte gorako ikasleek egiten baitituzte, lanbide hezkuntzari loturiko helburuen inguruan batez ere.

Euskararen erabileraren kale-neurketa

Euskararen erabilera igo egin da gazte giroan eta txikiteoan

Ikastetxe-irteeran eta jolaslekuetan, berriz, mantendu edo jaitsi egin da

rtero bezala, Elgoibarko kaleetan euskararen erabilera zerbaterainokoa den aztertu du Udaleko Euskara Batzordeak. Guztira 8.195 elgoibartarren hizkuntza jokaera neurtu da, hau da, bizilagunen %58,6 inguru, eta aztertutako elgoibartar horien euskararen erabilera %40koa izan da. Adinaren inguruko datuei dagokienez, haurrak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak. Aitzitik, helduak dira euskara gutxien darabiltenak, %29,8 bakarrik. Giroen araberako datuak

aztertuz, txikiteoak eta gazte giroak esparrurik erdaldunenak izaten jarraitzen duten arren, iazko neurketarekin konparatuz, gazte giroan %30etik %39ra igo da euskararen erabilera eta txikiteoan %25etik 28,5era. Iaz jolaslekuetan euskararen erabilera igoera handia izan bazuen, aurtengo datuak begiratu, erabilera jaitsi egin da. Baina beste giro guztietan erabilera mantendu edo igo egin da eta bereziki, familia eta gazte giroan izan dira igoerarik nabarmenenak.

Euskararen erabileraren bilakera

| | 1990 | 1994 | 1998 |
|-------------------------------|-------|--------|-------|
| Haurrak (0-14 urte) | %26,7 | %47,3 | %68 |
| Gazteak (15-25 urte) | %16,4 | %30 | %39,1 |
| Helduak (25-64 urte) | %14,9 | %23,3 | %29,8 |
| Zaharrak (65etik gora) | %36,7 | %41,5 | %40,6 |
| Guztira | %20 | To31,8 | %40,3 |

Ramon Uriguen eta Sabino Sorondo omenduko ditu Santa Eskeak

Bihar, hilak 6, izango da ekitaldia Plaza Handian

4Utgegifia'k sortutako Santa Eskea kalejiran aterako da bihar, hilak 5. Goizean goiz, Parrokoaren etxearen aurrean lehenengo koplak abestu ondoren, taldetan banatuta, auzoak koplazeari ekiten diote. Eguerdia partera, kalez kale hasiko dira kantatzen eta dirua batzen. Ixidor Solupe Santa Eskeko arduradunak duela pare bat aste esan bezala, "aurtengo eta datorren urteko eskeetako dirua Ertamerikara bidali nahi dugu".

Omenaldia

Eguerdiko 13:00ak aldera, koplariak Plaza Handira iristen direnean, Santa Eskearen alde lan mordo egindako bi elgoibartari omenaldia egingo zaie. Iaz hil ziren Ramon Uriguen eta Sabino



Ramon Uriguen



Sabino Sorondo

Sorondo (azken hau Donostiako Elgoibartarren Batzordeko presidentea) izango dira omendukoak. Uriguenek 50 urtetik gora eman zituzten Santa Agedako koruetan eta azken urteotan bera izan zen arduraduna eta koordinatzailea. Sabino Sorondo, berriz, jaitzez elgoibartarra da eta oso gaztetan Donostiara joan zen bizitzera. Urte askoan hildako elgoibartarren aldeko mezak antolatu zituen eta Donostiako Elgoibartarren Batzordeko presidentea izan zen.

Urtero bezala, anaiarteko bazkariarekin amaituko dute eguna Baltasar Elkartean.



Thinalas Litera Iteranili akkkaria kaleratuko da

Urruzuno Literatur Taldeak "Hamaika Litera" literatur aldizkaria kaleratuko du. Sei gazte elgoibartarrek osatzen dute Urruzuno eta euren asmoa literatura landu eta herritarren artean bultzatzea da. Horretarako, besteak beste, "Harnaika Litera" sortu dute, bertan, taldekideen lanak biltzen direlarik. Hala ere, nahi duten guztiek har dezakete parte beraien idatziak bidaliz edo taldeko kide eginez. Maite Rementeriak egin du aldizkariaren diseinua eta lau hilean behin kaleratuko da. Lehen zenbakiaren 4.000 ale banatuko dira baina aurrerantzean, harpidedunek bakarrik jasoko dute etxean. Harpidetza doan da eta txartelak BARRREN eta Elgoibarko Izarran (943 74 41 12 edo 74 16 26) bete ahal izango dira. Aldizkariak gain, hainbat ekitaldi antolatuko ditu Urruzuno Literatur Taldeak aurretan.



Nathalia, ETB-1 eko Izar Billar saioan

Elgoibarko Nathalia Mellado abeslariak ETB-1eko 'Izar Billar' saioan parte hartuko du. Aurreko astelehenean, programako kideak Nathalia elkarrizketatzen ikusi genituen Plaza Handian. Abeslari elgoibartarrak esan digunez, "etxean aritu ginen grabatzen. Gero Plaza Handira joan ginen nire aurkezpen bideoa izango dena egiteko eta azkenik, Eibarko Kiroldegian izan ginen dantza saioa irudiak grabatzen". Programa noiz emango duten ez daki Nathaliak, "grabazioa hilaren 17an izango da, besterik ez dakit". Nathaliak bi kantu abestuko ditu. Bat bere errepertoriokoa da, *Alutzu nahi zintuzket* izenburua dauka eta orain dela gutxi aditu batek itzuli dit euskarara. Oraintxe ari naiz letra ikasten". Beste abestiaren izena 'Empiezo a recordarte' da, Monica Naranjorena. Programan parte hartzen duten abeslarietatik batek izango du hurrengo saiora pasatzeko aukera. Zorte on, Nathalia.

Hauteskunde sindikalak izan dira enpresetan eta ikastetxe publikoetan ELA da Elgoibarko indar sindikal nagusia

Elgoibarko ikastetxe publikoetan joan den astean egin zituzten hauteskunde sindikalak. Irakasleek Eibarren eman zuten botoa eta gainerako langileek, berriz, Donostian. Hori dela-eta, ezinezkoa izan zaigu datu zehatzak eskuratzea. Hauez aparte, heniko enpresa gehienetan ere aukeratu dituzte dagoeneko ordezkari sindikalak. Hauteskunde datari dagokionean, enpresa bakoitzak erabakitzen du noiz egin bozketa. Gehientsuenek 98 urtean aukeratu zituzten ordezkari sindikalak, baina hiruzpalaru lantegi falta dira bozketa egiteko. 98ko abenduko datuen arabera, Elgoibarren ELA da nagusi 46 ordezkariarekin. Ondoren CCOO (35) dago eta segidan LAB (29).

Enpresa bakoitzeko ordezkariak

| ZENBAIT ENPRESATAKO EMAITZAK | 98/94 | 98/94 | 98/94 | 98/94 |
|------------------------------|-------|-------|-------|-------|
| | ELA | CCOO | LAB | UGT |
| Rodisa | 3/0 | 5/3 | 5/6 | -/- |
| Alkorta Brochaus | 1/3 | 2/2 | 2/1 | 2/3 |
| Etxe-Tar | 7/6 | -/- | 2/3 | -/- |
| Kondia | -/- | 4/4 | -/- | -/- |
| Lagun | 1/2 | 2/1 | 1/2 | 1/- |
| Geminis | 4/4 | 1/1 | -/- | -/- |
| Trater (Sarasketa) | 2/- | -/- | -/- | 3/3 |
| Doimak | -/- | -/- | 1/0 | 2/3 |
| Aisiakin | 2/1 | 3/1 | -/1 | -/- |
| Egondo | 1/1 | 1/- | 1/- | -/- |

Indar sindikalak Elgoibarren Ordezkarikopurua

| | ELA | CCOO | LAB | UGT | ESICUIS | Indepen. | Guztira |
|---------------|-----|------|-----|-----|---------|----------|---------|
| 94ko abendua | 47 | 28 | 12 | 1 | 5 | 140 | |
| 98ko unarrila | 43 | 39 | 23 | 11 | 5 | 122 | |
| 98ko abendua | 46 | 35 | 29 | 10 | 4 | 125 | |



Bakearen Eguna Pilar ikastetxean

Pilar ikastetxeko ikasle eta irakasleek Bakearen Eguna ospatu zuten aurreko ostiralean. Arratsaldeko 16:00etan ikasle guztiak ikastetxeko patioan elkartu ziren. Zenbait abesti kantatu ostean, ikasleek globoak eta paperezko uso bat askatu zituzten. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu.

Azken plenoan udaltzain kontratatzeako oinarriak onartu ziren

Intsumisoak legez ezin dira aurkeztu baina Udalak onartu egingo ditu

Joan den ostiralean, urtarrilak 29, plenoa izan zen Udaleixean. Bertan, alderdi politikoei hainbat gairen inguruan eztabaidatu zuten. Besteak beste, Albitxuriko industrialdea eta Madala 2 eta 3 sailei buruzko proiektuak izan zituzten mintzagai eta, hauez gain, bi udaltzain berri kontratatzeako oinarriak onartu ziren.



Udaltzaingoaren lantaldea handitu egingo da epe laburrera.

Albitxuri eta Madalako proiektuen inguruko gaiarekin hasi zen plenoa. Horri dagokionean, HB proiektuaren aurka agertu zuen. Pello Mendizabal zinegotziak azaldu zuenez, "Sigma lur publikoa izateko aukera erre egin da. Gure ustez, Albitxurin lurraren inguruko ikerketarik eta planifikaziorik egin gabe ezertan hastea abentura hutsa da". Lehen puntu hau, gainontzeko alderdi guztien baietzarekin onartu zen.

Madala 2 eta 3

Madalako guneak aldaketak izango ditu hemendik aurrera. Dagoeneko hastear daude lehen faseko etxebizitzaren eraikitze-lanak. Plenoan, Madala 2 eta 3 sailetako proiektua onartu zen. HBk ezezkoa eman zuen "planifikazio faltarengatik. Ez dakigu zenbat etxe behar diren hengan eta egin eta egin ari dira". IUk, berriz, informazio falta zela eta abstenitu egingo zela jakinarazi zuen.

Udaltzaingorako lanpostuak

Aspaldiko partez, Udaltzain txean lanpostu berrien deialdia egingo da. Izan ere, Udaltzaingorako bi plaza aterako dituzte epe laburtera. Gai honek sortu

zuen zeresanik oinarriak onartzerako orduan. PPko zinegotzia den Juan Carlos Abianen esanetan, "guk ezin ditugu oinarri hauek onartu euskarako proba puntuagarria izan beharrean eliminatorioa delako. Hala ere, udaltzainen beharra dagoela garbi dago eta nik bi beharrean, lau kontratatzea proposatzen dut". HB ere ez zen ados azaldu puntu honekin. Bere ustez, "espainol izatea eta inabilitazioa ez lirateke oinarrietan sartu beharko. Are gehiago, Udalak zenbait plentan intsumisioaren aldeko jarra hartu izan du eta orain intsumisioei lana bilatzea, kargu publiko bat betetzea edota babes ofizialeko etxebizitza baten jabe izatea galerazten zaie". EA bat etorri zen HBrekin. Ales Arrietak adierazi zuenez, "mian bat gator HBrekin baina aurretik ikusi izan dugu gauza hauek oztopatu egiten dutela prozesua eta une honetan beharrezkoak dira udaltzainak. Beraz, oinarriak daudenetan laga arren, intsumisioen eskaera orriak ere onartu egingo dira". HBk eta PPk aurka botatu zuten arren, gainontzeko alderdien baiezko botoei esker oinarriak onartu egin ziren.

- **Udalaren zorrak 300 milioitan gutxitu dira**

Legealdi honetan, Udalak hasieran zituen zorrak 300 milioitan gutxitu ditu. Horri esker, azken urteotan hainbat inbertsio egin dira herrian. Esate baterako, 1995ean Udalak 1.275.476.657 pta.ko zorra zuen eta aurten kopurua 987.661.387 pta.koa da. Izan ere, 1998ko aurrekontutik % 13,8 zuzendu zen zorra ordaintzeko. Honek guztiak izan du eraginik inbertsioetan. Izan ere, 1995ean aurrekontutik % 15,04 izan zen inbertsioetarako eta aurten % 16.

- **100.000 pta. eman ditu Udalak Jaiotzarentzat**

Gobernu Batzordeak Gabonetako Parrokiako Jaiotza antolatuta duen taldeari 100.000 pta.ko dirulaguntza ematea onartu zuen. Diru kontuei dagokionean, Ongarri argazki kolektiboak 369.394 pta. jasoko ditu eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak aurrekontuan zehaztutakoa baino 400.000 pta. gehiago jasoko ditu, 1998an antolatuta zituen ekitaldiek eragindako defizitari aurre egiteko.

NIEVES LOIOLA:

"Nekazari Ganbara izatetik Diputazioaren menpe egotera pasatu gara"

San Migelgo Sagarraga baserrian jaio zen emakume honek 1980tik Nekazari Ganbaran dihardu lanean. Deba Beheko baserriarren kezkei eta eskariei erantzuten aritzen da. Ganaduen alorreko eginbeharrek lapurtzen dizkiote laneko ordurik gehienak. Azken aldian hainbat aldaketa egon dira Nekazari Ganbaran eta berauei buruz hitz egin diezagun eskatu diogu Nievesi.

- Zer da Nekazari Ganbara?

Adm inistrazioarekin kolaboratzen duen erakunde da. Baserritarrek eskatutako edozein lan burokratiko egiten dugu. Hasi, baserritarren seguridade sozialeko kuotak kobratu, altak eta bajak egiaztatu... egiten genuen. 86an kutxa bidezko diminuzazioari ekin genion eta orain errenta aitortzen, agiriak eta batez ere ganaduekin zerikusia dau-

katen gaien kontrola egiten dugu.

- Ganaduen alorra al da lanik gehien ematen duena?

Bai, hemen ganadu asko mugitzen denez, gai horrek lan ugari ematen du. Hasi ganaduen saneamendu kanpainetatik eta papeleo guztia egiten dugu: altak, bajak, jaiotzak, erosketak, salmentak... Ganaduren bat jaiotzen den unean abisua jasotzen dugu, markatzailea bidali, eta ondoren, altako datuak ekartzen dizkigutenean onartu egin behar dira. Bestalde, astero ferietako salerosketen kontrola egitea ere gure ardura da. Honez gain, dirulaguntzen tramitazioa ere gure lanen artean dago.

- Azken aldian aldaketak izan omen ditu Nekazari Ganbarak.

Bai. Baina aldaketak batez ere burokratikoak izan dira. Nekazari Ganbarari zegozkion legeen arabera hauek desagertu egin behar zirela esan ziguten hasiera batean. Hala ere, Euskal Herrian funtzionamendua ezberdina izan zen eta 1995rarte ez genuen inolako aldaketarik igarri. Azkenik, iaz Nekazari Ganbara izateari laga eta Diputazioaren menpe geratu gara eta

hori izan da aldaketa nagusia.

- Zer eragin izan du horrek baserritarrengan?

Baserritarrek apenas ohartu dira aldaketaz. Hona etortzen jarraitzen dute eta guk herdin laguntzen diegu beraien kezkei eta eskariei erantzuten. Batzuek aldaketak egongo zirela entzun zutenean, kezkatu egin ziren, hemendik aurrera beraien arazoak konpontzera beste nonbaitera joan behar zirela uste baitzuten, baina denborarekin ohartu dira Nekazari Ganbarak here horretan jarraitzen duela eta ez daukala eraginik beraiengan. Funtsean aldatu den bakarra gure lan egoera izan da eta Nekazari Ganbara deitzen jarraitzen diotenez, izenean bertan ere ez da ezberdintasunik igarri.

- Eta zuri zer ekarri dizu?

Seguritasuna batez ere. Gaur artean baserritarrentzat lan asko egin izan dugu eta gure lanpostua baino beste errekonozimendurik ez daukagu. Orain arte edozein unetan kalean egoteko arriskua geneukan. Orain Diputazioko langile izatera pasatu garenez, askoz lasaiago gaude.



Baserritarren brigada

Baserrian egiten duten lan astunarekin nahikoa ez, eta bost lagunek talde bat nekazal ingurunean beste zenhait lan egiten aritzen da. Bide bazterrak garbitzetik hasi eta ferietako txosnak montatzerainoko eginbeharrak betetzen dituzte. Brigada hau osatzen duten bost baserritarrak Mendaroko labe bat berregiten ari dira orain eta aurrera begira ere badaukate proiektu garrantzitsurik.

1993an Diputazioak enplegua suspertzeko dirulaguntza eman zuen eta sei hilebetarako 18 langile kontratatu zituen. Epea bukatu zenean DEBEMENek brigada iraunkor bat osatzea erabaki zuen eta, honela, bost baserritarrez osatutako lantaldea eratu zen. Gaur egun hiru elgoibartar, mutrikuar bat eta Soraluzekeo bat dira kideak.

Baserritarrez osatutako brigada

Hasierako helburua, baserritarrentzat lanpostuak sortzea zen eta mendiak, bideak eta erreka bazterrak garbitzeko jendea kontratatu zuten. Deba Beheko bost baserritar lan horietan aritzen dira gaur egun. Garbiketaz gain, bide berriak egiten direnean Aldundiko eta Deba Beheko Udaletako dirulaguntzekin kunetak egiteaz ere arduratzen dira. Inguruko azoka eta ferietan jarri ohi diren egurrezko txosnak ipintzeko lana ere beraiek egiten dute. Gainera, Deba Beheko azoketatik ezezik, Gernika eta Deba Garaitik ere jaso dute lan hori egiteko eskaria.

Une honetan lan askorekin dabil brigada eta eginkizunak aurten bukatu behar direnez, jende gehiago hartzeko ideia ere badaukate. Orain artean jende ezagunarengana jo dute brigada osatzeko eta aurrerantzean ere berdin egiteko asmoa omen dute. Brigadaren ardura DEBEMENek dauka eta beraiek kontratatzen dituzte langileak. Honez gain, akordio baten arabera, Deba Beheko Udalen eta taldea-



Baserritarren brigada bost kidek osatzen dute. Beste batzuen artean ferietako txosnak muntatzen dituzte.

ren arteko bitartekari lana betetzen dute. Udalek bide bazterrak garbitzeko edo antzeko lanen bat egiteko eskatzen dutenean DEBEMENek brigadari agintzen dio lan hau egin dezan.

Naparrenekua eraberritzen

Orain, batetik Arrateko ingurua txukuntzen ari dira. Bestetik, Mendaron labea eraikitzen dabil-tza eta lokala berritzeko lanaren ardura ere lantalde honek hartu du.

Behin eginkizun hauek amaituta, Lasturren Naparrenekua etxea eraberritzeko asmoa daukate. Bertan denda bat ireki nahi dute bailarako baserriko produktuak saltzeko. Era berean, Izarraitz Bizirik proiektuaren informazio bu-

legoa izango litzateke etxea. Bigarren pisuan, oraindik erabaki gabe dagoen arren, litekeena da museo bat jartzea.

DEBEMENek hasieran jarritako helburu nagusia bete du. Izan ere, baserrian lan asko egon arren, bertatik bizi ahal izateko adina ematen ez duenez, baserritik kanpo lanpostu berriak sortzearen erronka hori guztientzat onuragarria izan da.

Lan hauek guztiak bukatuta, aurrera begira ez daukate proiektu berezirik garbiketa kontuaz gain, baina baliteke Mendaroko labearen eta Lasturko etxearen eraberritzearen antzeko beste egitasmo berriren bat ere sortzea.

AROSTEGI baserrira

Maria Luisaren aita Ferrolen soldadu zegoela Arostegi baserria libratu zela jakin zuen. San Roke auzoko Errekarte baserrian jaio zen baina, San Lorentzora joatea erabaki zuen. Arostegin jaio eta hazi ziren bere seme-alabak eta gazteena, Maria Luisa Agirrebeña, bizi da gaur egun familiarekin Arostegin. Berarekin hizketan jardun dugu baserriko bizimoduaren berri izateko.

Anaiak lantegian hasi ziren eta Maria Luisa beti baserriko lanetan ibili izan denez, bertan gelditzea egokitu zitzaion. Hala ere, anaiak jarraitu dute baserriarako joerarekin. Gurasoak bizi zirenean gehiago inguratzen ziren baina orain ere joaten dira baserrira. "Eurak baserrixan jaixotakuak dia eta bertakuak izanda oin bisitxara ere etortzen dia sarritxan". Maria Luisa beti baserriko bizitzara lotuta egon da eta esan digunez, kaleko pisu itxi batean bizitzea agian kostatu egingo litzaioke. "Probau arte ezin da jakin, baina kanpua bizi izan gara beti eta Iekuari gustua hartu diogu". Hala ere, baserria kaletik gertu dagoenez oso erraz jaisten dira, "baina oin eginkizunen bat euki ezian perezia ematen digu kalera batzaiak. Halaxe ohitxu gera eta baserrixan gustora egoten gera".

Esplotazioa etxerako

Lehen baserriko jardunean gehiago aritzen ziren, familia horretatik bizi baitzen. Beste gauza batzuen artean, bere aitak oso sagardo ona egiten zuela esan digu Maria Luisa Agirrebeña. Kontatu digunez, kalera ere jaisten ziren esnea saltzera, "ni oso gazterik hasi nintzan kalera astuan esniakin bajatzen, oin kotxian dotore dabiz esne bantzailiak". Gaur egun, bera da baserriaren jira eramaten duena, senarra eta setne-alabak kalean baitaude lanean edo ikasten. Ortutik edo ganaduen esplotaziotik ateratzen dutena orain etxerako baina ez da izaten. Bere esanetan, "kalian enpleo bat bilatzen dabanak ez du baserrixan lan askorik itxen. Inbersio haundixak inda dauzkanak jarraitxu leike baserritik bizitzeko aina atera arte, baina guk aspalditik



Auzoko jaixak

San Lorentzo auzoko jaiak garai onean direnez, herriko jende ugari hurbiltzen da bertako giroaz gozatzen. Gaur egun sona handikoak dira, baina lehen ere, festa onak izaten omen ziren. Maria Luisa Agirrebeña kontatu digunez, "San Lorentzo egunian Txanbolin danbolintxerua ibiltzen zan etxerik etxe jotzen eta jendiak gonbidau itxen zaban. Gero erromerixia izaten zan, danok dantzan ibiltzen ginan baserri aurreko atarixan".

hona asko jaitsi dogu produkziva". Lehen gazta eta ortuko produktuak azokan saltzen zituzten, baina horrek lan handia ematen duenez, piskanaka uzten joan dira.

Datozen beIaunakliak

Seme-alabek ere baserrian jarraituko dutela uste du Maria Luisak, libre daudenean bertan lanean aritzen ra. Aurreko udan patata ateratzen ibili omen dira eta tokatzen den lana egiteko prest daude, txikitatik hori ezagutu baitute inguruan. "Nik jarraitxuko dabela pentsatzen dot. Baina beste gauzaren bat topau ezkerro baserriko lanian ez dabe jardungo". Beraiek ere gauza direnerarte baserriko lanetan arituko dira, eta gero, Maria Luisak esan bezala, "gai ez geranian ere bertan egongo gera norbaitek beste aldera eruan arte".

AROSTEGI

Auzoa: Sallobente

Bizilagunak: Maria Luisa

Agirrebeña, 54 urte;

Benito Irazabalbeitia, 54 urte;

Nerea Irazabalbeitia, 22 urte;

Itziar Irazabalbeitia, 21 urte;

Iñigo Irazabalbeitia, 13 urte.

Lur bedadura: 7 hektarea

Esplotazioa: Abelazkuntza,

behiak eta ardiak eta ortua etxerako.

BIZIKLETA gainean

ELGOIBAR-AZITAIN-ARRATE ARRAITZA-MORU-ELGOIBAR

Distantzia: 18 km.

Denhora: 2,5 ordu.

Zailtasuna: erdikoa.

*Eskuman, Morutik
San Pedrora doan bidea ikus
dezakegu.*



■1 Elgoibartik irten eta Eibar-
rerraino joan behar da. Azitaingo
industrialdera iritsi arte. Industria-
dea pasatu eta berehala, eskuma al-
dera, zementozko pista hartu behar
dugu eta handik gora jarraitu.

■2 Hiru kilometro inguru egin eta gero, bidegurutze bate-
ra ailegatuko gara. Hemen ezkerreko bidetik jarraituko dugu
goruntz.

■3 Kilometro bat egin ondoren, Arratera iritsiko gara
Cantabria jatetxe parean geratzen den pistatik.

■4 *Cantabria* pasatu eta aurrerantz jarraituko dugu hotel
berrira iritsi arte. Hemen eskumako pista hartuko dugu, errepi-
dea lagata.

■5 Pistan aurrera egin eta gero, asfaltora irtengo gara be-
rriz, eta 200 metro inguru egin ondoren, eskumara dagoen bi-
dea hartuko dugu San Pedrora ailegatu arte.

■6 Armazio baserritik San Pedrora joango gara eta hemen,
tiro-pitxoia dagoen bidea hartuz, Moru mendira iritsiko gara
Arraitza baserrira pasatu ondoren.

■7 Morutik heherako pista jarraituz jaitsiko gara Sigmara
iritsi arte.

*Argazkian agertzen den
baserrira Arraitza da.*

Informazioa:
Andoni Etxeberria

Aitor Iturrikastillo 13 urteko rnutil koskorra zen Gurutze Gorrian sartu zenean. Gaur egun 19 urte dituen elgoibartar gazte honek oso trikitan jakin zuen besteei laguntzea atsegin zuela. Gazteak berekoiak direla eta solidaritatea hitzaren esanahia ezagutzen ez dutela entzun izan dugu sarri. Aitorrek ondo baino hobeto erakusten du usteak erdia ustel izaten direla askotan. Izan ere, Elgoibarko Gurutze Gorriko ki-deek, 1998ko bolondres onena aukeratu berri dute Aitor.

AITOR ITURRIKASTI O

"Gazteok badakigu solidarioak izaten"

— **13 urterekin hasi zinen Gurutze Gorrian. Nolatan?**

- Nere lagun bat Gurutze Gorrixan zauan eta nik ere probatzia erabaki naban. Lelengo batez ere bestiei laguntzen nien baina segiduan hasi nitzan lanian.

— **Horretarako ikastaroak egin beharko zenituen, ezta?**

- Bai. Lelengo ikastarua 14 urte nakazien in naban eta ordutik asko in izan ditzugu. Guri danetik itxia eta ikustia tokatzen jaku eta ondo egon bihar gera prepara-
rauta.

— **Zer da egiten duzuna?**

- Danetik. Anbulantziakin urtetzen gera, txirrindulari lasterketak daudenian ere han egoten gera, jendia etxetik etaraten dou nora-baitxera eruateko...

— **Zenbat ordu guztira?**

- Ahal doten guztietan

juten naiz. Astian zihar arratsaldero eta asteburuetan, ostiral arratsaldeko 21:00etatik domeka arratsaldeko 21:00ak arte egoten gera. Bazkaltzera etxera juten gera baina lo eta dana Gurutze Gorrixan itxen dou.

— **Giro ona izango duzue zuen artean, ez?**

- Bai, hori oso inportantia da. Ordu asko pasatzen ditzuzu jendiakin eta ez badao "roilo ona" igarri itxen da. Zorionez oin arte behintzat oso-oso ondo konpondu izan gera, lagunak gera eta kalera ere elkarrekin urtetzen gera. Oso ondo.

— **Gazteak solidarioak ez direla esaten dute askok.**

- Ez dot uste egixa dani-kan. Gurutze Gorrixan gazte asko daude eta horrez gain, gazte askok beste era batera lantzen dabe solidari-

dadia. Bakoitzak daki zein dan berak betetzen daban arlua eta hortik bideratzen dau lana. Gazteak badakigu solidarioak izaten.

— **Zer egin zaizu gogorre-na?**

Zorionez ez jata tokau sekula lagun bat atenditzia eta espero dot ez tokatzia. Oin arte dana izan da oso positibua eta batzuetan egun txarra euki arren, beti bilatzen dozu arrazoiren bat jarraitzeko. Asko konpensatzen dau eta benetan ondo sentitzen zera gauzak ondo itxen ditzuzunian.

— **Zer ari zara ikasten, Aitor?**


- Nere kontura, akademia batian nabil Erizain Laguntzaile titulua ateratzen. Garbi dakat osasunakin eta bestiei laguntziakin lotutako zeozer ein nahi dotela.

- **Urteko bolondresa aukeratu zaituzte. Pozik?**

- Oso pozik, ez naban espero. Gurutze Gorrixan gauden guztixak botau bihar izan genduan eta ilusiva itxen dau zure lankidiek zu aukeratu zaitxuela jakitziak. Jarraitzeko animuak ematen dizkizu.

— **Nola animatuko zenituzke gazteak?**

Gurutze Gorrixan dantzat daude atiak zabalik eta gauza asko daude itxeko, ez da anbulantziakin urtetzia bakarrik. Gainera, asko ikasten da eta jende berrixa ezagutu eta lagunak itxeko aukera oso ona da. Jendiakin tratatzen ikasten dozu eta momentu txarrak eta onak pasau bihar diane-
z, asko ikasten dozu bai zure buruaz eta baitxa jendiaz ere. Aberasgarria da.



EESTEEK ESAAIA

"Gurutze Gorria aurrera ateratzeko egiten duen lana asko estimatzen dugulako aukeratu dugu urteko bolondresa" MILA PICAZA, lankidea.

URTARRILEAN

• • • • HILDAKOAK • • • •

- Justa Gonzalez Sanz, 84 urte (Urtarrilak 4)
- Maria Pilar Goikoetxea Zubiaurre, 63 urte (Urtarrilak 9)
- Agapita Urdanibia Iturriza, 88 urte (Urtarrilak 17)
- Maria Paula Uranga Osoro, 9(1 urte (Urtarrilak 22)

• • • • •

*Urtarrilean jaiotakoen zerrenda ez dugu eskuratzetik izan.


Sabino Sorondo Igartua

(1918-1998)



- Madalan jaio zen, Txarriduna dagoen lekuan, 1916ko maiatzaren 3an. Familiak estankoa zeukan bertan. 8 anai-arreba ziren, laugarrena bera.
- Elgoibarren egin zituen lehenbiziko ikasketak. Gazte xamar zela, familia Donostiara joan zen bizitzera eta bertan jarraitu zuen ikasten.
- Gaztetan mekaniko dentista lanak egin zituen Donostiako dentista batekin. Flasieran ikasle modura hasi zen eta beranduago, eskarmentua hartu zuenean, mekaniko lanak egiten. Gerra sasoiara arte egon zen bertan.
- 36ko gerran, Bilbora alde egin zuen. Handik Sevillako `BatallOn de Trabajadores' delakora eranean zuten eta urte mordoska eman zituen bertan. Sevillako sasoiari buruz oso oroitzapen onak zituen. Kontatzen zuenez, hango apaiz bat ezagutu eta oso lagunak egin ziren. Bertan zeuden beste elgoibartar askorekin batera, abesbatza batean kantatzen zuen.
- Sevillatik bueltan, Hernaniko `Papelera'n hasi zen lanean. Jubilatuta arte egon zen lan berean.
- Donostiako Maite Sanehez-ekin ezkondu eta seme-alaba bi izan zituzten, neska eta mutila.
- Gizon elizkoia zen. Egunero joaten zen mezarara eta Donostian bizi ziren Elgoibartarren Batzordeko presidentea izan zen. Hildako henitarren aldeko mezak antolatzen zituen Donostian eta urtean batutako dirua Elgoibarko Santa Eskearentzat izaten zen.
- Oso gogokoa zuen futbola. Arbitroa zen eta Gipuzkoako Arbitroen Kolegioko presidentea ere bai.
- Donostian bizi zen arren, ahal zuen guztietan etortzen zen Elgoibarrera; San Anton jaietan, Trinitateetan, eta nola ez, San Bartolome jaietan. Hamaika tarre eder pasatu zituen Elgoibarko kuadrilarekin.
- 1998ko urriaren 8an hil zen 82 urterekin. Sabino hil baino 7 egun lehenago semea hil zitzaion baina familiakoek ez zioten berri txarra eman nahi izan.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSO A ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltelia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (MobiIa) 608 77 07 01



A

rgazki hau Arantza Ando-negik ekarri digu.

Erretratua zein urtetakoa den ez daki, baina litekeena da 50 bat urte izatea. Argazkiari begira eta bi pertsonaia hauek nor diren asmatu ezinik bazabiltza-

te, hona hemen soluzioa: ezkerrekoa Don Tomas Zubizarreta (t) mediku elgoibartarra da eta eskumako gaztea, Cordobes' torero ezaguna.

Nolatan elkartu ziren bi pertsonaia hauek? Ba, izan ere, Don Tomas medikuari omenaldia egin zioten Gipuzkoako mediku edadetuena izateagatik. Omenaldi ekitaldia Maria Cristina Hotelean izan zen eta kasualitatez, El Cordobe's bertan zegoen. Toreroak, omenaldia egin ziotela jakin zuenean, Don Tomasekin erretratua ateratzea nahi izan zuen.



karkizano

San Franzisko, 12-14 — Tel. 943 74 05 49



_IVAnchtistegui s.a.

ZERAMI KAK

Erakuskela eta buregoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Blitegia:
Olaso industrialdea
01asope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 74 20 38 - 74 23 71

"OeUteU:Ziftet ea

**Izan zaltez abeslari
egun batez!**

**Ez ahaztu disfrazaz,
MOZORROen
DESFILEA ere
egongo da-eta.**

Wiateltee

**otsallak 13, larunbata
Plaza Handian
arratsaldeko
1 7:00etatik 1 9:00etara**

**Oharra: Play-backa
egiteko aukera ere
izango da. Bakoitzak
bere musika-zinta ekarri
beharko du.**



Antolatzailea:
Elgoibarko Izarrako



Elgoibarko Udal
"T.1\ ; vij : tylsm,"

Eusko Jaurlaritza

**Abenduan milaka
eguzki.**

**Lariorde
anuratharell aijip**

Otsailean ere, eutsi egizu zure



easkarari

en

KoNTSEILUA

KUSARAREN OYARTE EBARDUEN

Egeltz Mora jualokall brontzea du Estatuka Judo Ranzin-aan

Egoitz Mora elnoibartarmk brontzezko lortu zuen Estatuko lehenengo Judo Ranking-ean. Lehiaketa Madrilgo Aluche polikiroldegian jokatu zen, urtarrilaren 23an eta 24an. Urtean einaitzarik onenak lortu zituzten 18 urtez azpiko 140 judoka aritu ziren eta Ranking edo txapelketa honen helburua European aritzeko selekzio bat osatzea zen. Brontzezko dominak aukera emango clio Egoitzi hurrengo jardunaldian parte hartzeko, Fuengirolan martxoaren 26tik apirilaren lera bitartean.

Bestalde, Errenteriako polikiroldegian, 17, 18 eta 20 urtez azpiko eta senior mailako Gipuzkoako txapelketak jokatu ziren. Ibai kirol elkarteko 12 judoka aritu ziren lehian eta emaitza onak lortu zituzten. Junior mailan, Gorka Garatek eta Aitor Gorroñok urrezko domina irabazi zuten eta 18 urtez azpikoetan Zuhaitz Azpiazuk urrezko domina lortu zuen. 17 urtez azpikoen mailan, berriz, Xabi Gonzakzek eta Andoni Garciak brontzezko dominak eskuratu zituzten. Elgoibartar hauek, otsailaren 7an Errenterian bertan jokatu den Euskadiko txapelketarako sailkatu dira.



Egoitz Mora (eskumatik bigarrena), brontzezko domina jaso zuen unean.



Ibai Kirol Elkarteko judoek emaitza onak lortu zituzten Gipuzkoako txapelketan.

K I R O L A L B I S T E A K

• Patronatuko txartel berria

99rako txartel berriak jaso daitezkeen aditzera eman nahi du Udal Kirol Patronatuak. Txartelari esker, bazkideak erosoago ibiliko dira eta zuzendaritzaren lana asko erraztuko da. Denbora gutxi barru, Kiroldegiko sarreran kontrolerako tresna bat jarriko da, hortaz, beharrezkoa izango da txartela soinean eramatea.

• Jon Zubiaurre eta Ines Segura, Neguko Igeriketa Txapelketan

Elgoibarko Igeriketa Taldeko Jon Zubiaurre eta Ines Segura igerilariak gutxienezko markak lortu dituzte Gipuzkoako Neguko Txapelketan parte hartzeko. Hortaz, asteburuan bi egun pasatu dituzte Zarautzen, bertan izango diren probetan parte hartzeko. Ines 50 metro libretean, 100 metro libretean eta 100 metro tximeletan arituko da. Jon Zubiaurrek, berriz, 50 metro libretean hartuko du parte.

• Eskola kiroleko igeriketa Txapeldunak

Kiroldegiko igerilekuan Eskola Kirola jardunaldietako igeriketa txapelketa jokatu zen domeka goizean. Benjamin eta alebinetako neska-mutilek hartu zuten parte eta denak 25 metroko luzeran aritu ziren krol eta bizkar estiloetan. Aipagarria da Miriam eta Aitor Arosa anai-arrebek norgehiagoka guztiak irabazi zituztela benjamin mailan. Alebinetan, berriz, Alberto Fernandez eta Lara Urain nagusi ziren. Hona hemen emaitzak:

BENJAMINAK (111.7.)

25m. krol

1.- Aitor Arosa

25m. bizkarra

1.- Aitor Arosa

ALEBIN (MUT.)

25m. krol eta bizkarra

1.- Alberto Fernandez

BENJ. (NESK.)

25m. krol

1.- Miriam Arosa

25m. bizkarra

1.- Miriam Arosa

ALEBIN (NESK.)

25m. krol eta bizkarra

1.- Lara Urain

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Lemona 1
Elgoibar 2- Zarautz 3 (1. erreg.)
Hamaika Bat 0- Pedrusko 1 (2. erreg.)
Elgoibar 2- Aftorga 1 (L. N. jub.)
Munibe 1- Elgoibar 2 (1. jub.)
Elgoibar 2 - Almen 2 (Kad.)
S. Herrera 0- Elgoibar 0 (Inl.)
Elgoibar 9 - Almen 0 (Nes.)

Areto Futbola

Oive 4- Zur Ta Lur Elg. 1 (1. maila)
Zur Ta Lur Elg. 3- Ondarre 1 (Auton.)

Futbitoa

Los Herminios 1- S. Braga 5
Aizkorak Mendibil 3 - Kunta Kinte 9
Aide Globun 3- Berrogei Duro 9
PSK 9 - Lojantzi 0

Eskubaloia

Urola 26 - IMH Elg. 20 (Senior mul.)
Tecnomeca Elg. 32 - Cor. Vitoria 28 (Jub. mul.)
Pneumax Elg. 16 - Cor Vitoria 24 (Kad. mul.)
Urdaibai 19 - Pagoaga Elg. 27 (Jub. nes.)
Urdaibai 15 - Unceta Elg. 22 (Kad. nes.)
IMS Elg. 23 - Petronor 14 (Senior nes.)

Idarraga kafeak 2. saria

HAUNDIke jokalaria erregularrena 98/99
JOKALARIA PUNTUAK

| | |
|--------------------------|----|
| 1- Aitor Trebirla | 29 |
| 2- Eneko | 21 |
| 3- Diaz | 21 |
| 4- Ibon Muguruza | 20 |
| 5- Beitia | 18 |
| 6- Txasio | 18 |
| 7- Iker Leonardo | 17 |
| 8- G. Lazarobaster | 17 |
| 9- Elkorro | 15 |
| 10- Madina | 14 |
| 11- Igur | 11 |
| 12- Caro | 10 |
| 13- G. Leonardo | 10 |
| 14- Loren | 5 |
| 15- Portu | 1 |

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

22:10 Zur Ta Lur Elg. - Aut. Beraun (1. maila)
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Ocaso (Auton.)

Eskubaloia, Kiroldegian

16:00 Unceta Elg. - Ermua (Kad. nes.)
17:30 Pagoaga Elg. - Ermua (Jub. nes.)
19:00 IMH Elg. - Hernani (Sen. mut.)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 6
15:30 Elgoibar - Soraluze (1. jub.)
17:15 Pedrusko - Urola (2. erreg.)
Igandea, 7
10:45 Elgoibar - Lengokoak (Inf.)
12:15 Elgoibar - Hamaika-Bat (1. kad.)

Futbitoa, Kiroldegian

10:00 Lojantzi - Kunta Kinte
11:00 Aizkorak Mendibil - Los Herminios
12:00 Berrogei Duro - S. Braga
13:00 Aide GLOBun - Los Peñaskos

Iaz baino 180 lan gehiago aurkeztu dira Elgoibarko Izarra Idaz-Lehiaketetan, 391 guztira

Aurten estrainekoz LHko 3. eta 4, mailako haurrek ere hartu dute parte

Urteroko zitari hutsik egin gabe, 1998ko Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketan sari banaketa egin zen Kultur Etrean joan den ostegun iluntzean. Aipagarria da iazko deialdira baino 180 lan gehiago aurkeztu direla, aurten guztira 391 lan izan baitira. Sari banaketa Txan Handia magoaren entaldia girotu zuen.



Argazkian, saritu guztiak Txan Handia magoarekin.

"Eta musu bat eman nion" gaiaren inguruan osatu behar izan zuten ipuina. Epaimahaikideek adierazi digutenez, bitxikeria aipagarriak izan dira. Adibidez, gaztetxo batek Olentzerori gutun berezia idatzi zion anaia txiki bat eskatuz. Alkateari idatzitako gutun irabazlean, berriz, Deba ibaiko arraintxo batek bere kekak azaltzen ditu. Aurten sari banaketa ekitaldian, Kultur Etxeak gainezka egin zuen. Izan ere, hurbildu ziren haur

az 75 urte bete ziren Urruzuno elgoibartar idazlea hil zela, hori dela eta, zenbait aldaketa egin ziren Idaz Lehiaketan. Alde batetik, estrainekoz, L.H.ko 3 eta 4. mailakoei parte hartzeko aukera eman zaie. Hauek gutun bana idatzi behar izan dute, gaztetxoek Olentzerori eta besteek alkateari. DBHko lehen bi mailetakoko ikasleek ere

guztiak liburudendetan gastatzeko 5.000 pezetako sei txekeren zozketan parte hartu zuten. Ekitaldiaren erdian, Txan Handia magoaren ikuskizuna izan zen eta gaztetxoek harritu zituen karta joko eta loreak desagertarazteko magiarekin.

ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK 98



Jon Ander Cerron



Miren Etxezarreta



Amaia Fernandez



Maite Mugerza

A MAILA (LHko 3. eta 4. mailak)

- Olentzerori gutuna
- 1. saria, Jon Ander Cerron
- 2. saria, Lander Azpiazu
- 3. saria, Olatz Uriguena

B MAILA (1., Hko 5. eta 6. mailak)

- Eskutitzen atala (Alkateri gutuna)
- 1. saria, Maite Mugerza
- 2. saria, Antton Alberdi
- Bertsoak
- 1. saria, Antton Alberdi
- 2. saria, Ander Gerenabarrena

C MAILA (DBHko 1. eta 2. mailak)

- Ipuinak
- 1. saria, Amaia Fernandez
- 2. saria, Amaia Gorrotxategi eta Asier Astarloa
- Bertsoak
- 1. saria, Gorane Salaberria
- 2. saria, Olatz Urbizu

D MAILA (DBHko 3. eta 4. mailak)

- Ipuinak
- 1. saria, Maite Uriarte
- 2. saria, Miren Guillo

E MAILA

- Ipuinak
- 1. saria, Miren Etxezarreta
- 2. saria, Miren Larratiaga



Gorane Salaberria



Antton Alberdi




Maite Uriarte

San Juan Bosko eguna

Urtarrilaren 29an ospatu zuten Herri institutuko ikasleek San Juan Bosko Eguna. Ohi duten bezala, ekitaldiz beteriko jai eguna izan zuten eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, ikasleak gustura ibili ziren.



13:30 krosa. Eguraldi eskasak ez izan galerazi ikasleak goizean goiz San Antolinetik ndekairaino saltaka aritzea. Korrikalari prestuenak helmugan zortzi minutu eskasean sartu ziren.



9:30 Txirrindulari lasterketa. Goitibeherek ez zuten izan aukerarik baina txirrindulariak prest zeuden Mintxetan gora joateko.



Patata-tortila lehiaketa. Batzuek gogotsu hasi zuten lana eta beste batzuek olioia nola berotzen zen begira egon ziren. Itxura eder-rra zuten tortilek! Ez zen lan erraza izan irabazlea aukeratzea.

11:00 Pettiren emanaldia. Bere ahotsa eta kitarra laster famatuak izango dira.



00 Irakasleen eta ikasleen arteko futbOTI partida. Profesionalak bezala aritu ziren!
12:30 Antzerkia. Clintonen parodia eta Istreepetsea ere izan ziren tartean.



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111

Txanda hadzeko . 943 743354

Planning-a 943 742950

Alkoholiko Anonimoak . 943740385

D.Y.A (anbulardzia) . 943 464622

Gurutze Gorria . 943 743864

Mendaroko Ospitalea.. 943 032800

Odol Emaifeak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.. 943 740442

PESA (Eibar) . 902 10 12 10

Taxi geltokia . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366

Udal Kirol Patronatua.. 943 744415

Kultura Zerbitzua.. 943 742158

Mendaroko Udala. . 943 756100

Ongizate zerbitzua 943741008

Udaletxea 943 741050

Udaltzaingoa. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626

Kiroldegia..... 943 744415

Konsumo Bulegoa ... 943 743088

Liburutegia 943 743525

Musika Eskola 943 742145

M intxeta 943 744315

Parrokia 943 740842

Postetxea 943 741547

Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza.. 943 740296

Zaharren Biltokia .. 943 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola . . 943 74 21 41

HHI (EPA) 943 74 08 80

Herri Eskola 943 74 08 79

I.M.H. 943 74 41 32

Herri Institutua

Arreiturre .. 943 74 02 67

Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80

Ikastola 943 74 44 41

Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12

EI Diario Vasco ... 943 74 40 73

El Gorreo Español.. 943 74 10 82

Egin 943 10 84 21

Zazpiki irratia .. 943 74 34 74

5 ostirala

22:30 ANTZERKIA
Taldea: Oihulari Klown
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Haizea
Emakume Taldea

larunbata

9:00 SANTA ESKEA
Irteera Plaza Handia

11:30 ATE IREKIEN
EGUNA
Herri Eskolan

13:00 SANTA
ESKEKOEN
OMENALDIA
Omenduak:
Sabino Sorondo eta
Ramon Uriguen
Plaza Handian

16:00 PAILAZOAK
Herri Eskolan

19:30-22:15 ZINEA
"La niña de tus ojos"

7 igandea

12:30 BANDAREN
KONTZERTUA
Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
"La niña de tus ojos"

8 astelehena

22:30 ZINEA
"La niña de tus ojos"

10 asteazkena

17:00 PORROTX ekin
MERIENDA
(Kultur Errota)
Kultur Etxeko ganbaran
Antolatzailea:
Atxutxiamaika B. T.

11 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"El faro del sur"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

12 osti rala

22:15 ZINE KLUBA
"El faro del sur"
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

22:30 URBELTZen
DANTZA GANBARA
(Kultur Errotaren 5.
emanaldia)
Kultur Etxeko Sotoan
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

11 NE A



Zuzendaria: Fernando Trueba.
Antzezleak: Penelope Cruz,
Antonio Resines, Jorge Sanz.

La niña de tus ojos

Espainiar folkloriko talde bat naziek menperatutako Alemaniara doaz pelikula bat grabatzera bertako Propagandako Ministroaren onespenerekin. Berlingo estudio batean izango da anazioa eta gerrako presoek egingo dute figurante lana. Grabatzen ari diren batean, 'Kristal Hautsien Gaua' izenez ezagutzen dena biziko dute. Gau horretan, alemanek milaka judio hil zituzten.

• **linowferentziar saioa gaur, hilak 5, Herriko Antzokian**

Ohiulari Klown antzerki taldearen 'Klownferentzia' lana ikusteko aukera izango dugu gaur, hilak 5 (ostirala). Haizea Emakume Taldeak antolatutako saioa 22:30ean hasiko da eta Axen Eskaladak eta Pedro Arnaezek (Marrubi eta Flippo), amorrazioz bizitzearen arteari buruzko klown parodia antzeztuko dute Virginia Imazek egin eta zuzendutako lanean.

• **"Porrotxekin merienda", Hultur Errotarren 4. emanaldia**

Lau eta hamar urte bitarteko haurrentzat bereziki prestatutako emanaldia izango da asteazkenean, hilak 10, arratsaldeko 17:00etan hasita. Sarrera dohainik izango da eta haurrek Porrotxekin merienda jan, jolastu... eta arratsalde polita pasatzeko aukera izango dute. Honez gain, sorpresa mordoa ere izango dira.

• **Musika Bandaren kontzertua domekan, hilak 7**

Udaleko Musika Bandak kontzertua emango du domekan, hilak 7, Herriko Antzokian. Eguerdiko 12:30ean hasiko da Jose Antonio Osorok zuzendutako emanaldia ondoko egitarauarekin: 'Marcha Leonesa', 'Sinfonia Incompleta', 'Zodiae', 'The paper-mills bandsmen' eta 'Cordilleras de Ios Andes'.

• **Gorputt adierazpena eta erlajazioa**

Udal Kirol Patronatuaren eskutik, gorputz adierazpenari eta erlajazioari buruzko ikastaroa izango da otsailean. Bi astez luzatuko da, astearte eta ostegunetan (15:30-17:00 edo 18:30-20:00). Izena emateko Kiroldegira zuzendu (943 74 44 15).

• **Donostiako elgoihartarren aldeko meza**

Donostiako Elgoibartarren Batzordeak meza antolatu du domekarako, hilak 7. Elizkizuna San Jose Eskolako kaperan izango da, Prim kaleko 33an. Honako hauen omenezko meza da: Pedro Atristain, Juan Sorondo Sanchez, Sabino Sorondo Igartua, Luis Garate Epelde, Iñaki Etxezarraga Bilbao, Cruz Alberdi Unamuno, Soledad Sorondo Igartua eta M. Angeles Ardanaz. Ohi bezala, elizkizunean jasotako dirua Santa Agedako Koroiei bidaliko zaie.

• **Aretoko jokoak Jubilatu Etxean**

Astelehenean, hilak 8, hasiko dira Aretoko Jokoak Jubilatu Etxean. Musa, tutea, briska, seiak eta beste zenbait jokotan parte hartzeko aukera izango du nahi duenak. Irabaziekin eskualdeko bikoteen aurka jokatu dute.

• **Ate irekien Eguna Herri Eskolan**

Herri Eskolakoek Ate Irekien Eguna antolatu dute biharko, hilak 6, goizeko 11:30etik aurrera. Ordu horretan ikastetxeko atearak irekiko dituzte nahi duenak zentroa ikus dezan. Arratsaldeko 16:00etan, haurtzako pailazo ikuskizuna izango da ikastetxeko patioan.

1 **11**

FARMAZIAK

| | | |
|-----------|--------------------|-------------------|
| | Egunez | Gauz |
| 5 | Escala | Escala |
| 6 | Bidasolo | Bidasolo |
| 7 | Bidasolo | Bidasolo |
| 8 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Santa Ana kalean) | |
| 9 | Anduaga | Anduaga |
| 10 | Yudego | Yudego |
| 11 | Zabaleta | Zabaleta |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
ANDUAGk Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
6 igandea Doña Mercedes

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Eduardo Mignona.
 Antzezleak: Ingrid Rubio,
 Jimena Baron, Norma Aleandro.

El faro del sur

Bi ahizpa gaztek, gurasoak auto istripu batean galdu ondoren, Argentina eta Uruguai bideetatik hasten duten bidaia kontatzen digu Eduardo Mignona zuzendari argentinarrak. Gurasoen galarak bi ahizpengan sortarazten duen barkadatea, laguntasuna eta ilusioak sentibiltatez azaltzen ditu.

R1

El Na

Lana

ESKAINITZA

- Agentzia inmobiliarioak (Errosario kalea, 25, behe) saltzaileak behar ditu salmenta inmobiliarioetarako. %50eko komisioa. tr 943 74 43 58
- Astegunetan lan egiteko kamare-roa behar da. •tr 619 86 30 16
- Astebumetan barran lan egiteko pertsona bat behar da te 943 74 43 46

ESKAERA

- Erizantzan diplomatutako neska euskalduna pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko eskaintzen da. Etxean edo ospitalean, egunez edo gauez. Itt 943 74 27 78 (Itziar)
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. tr 943 74 35 43
- Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu eta garbiketak egiteko. Orduka. Esperientziarekin. 12 943 58 40 31 (Elgoibar)

Partikularrak

- Kirmikan lizentziatuak rmatematika, fisika eta kimika klaseak ematen ditu Mendaron. Maila guztrak: OHO, DBH, BBB, UBI, FP, REM... Esperientziarekin. tr 943 75 62 51
- Frantseseko klaseak ematen ditut. Intentsiboa ere bai. 13 943 19 10 71 (Carolina)
- Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa eta ikasgai teknikoiei (neumatika, hidraulika...) buruzko partikularrak ematen ditut. tr 943 74 22 29 (Begoña)

Garajeak

- Garajea saltzen da Urasandihan, Argi independentea. tr 943 74 08 63
- Garaje itxia salgai Polikiroldegi ondoan. tr 943 74 21 31 (Santi)
- Garajea salgai Leku-Ederren. tr 943 74 43 98
- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. v 943 74 03 81
- Marradun garajea alokatzen da Arregitorren. tr 943 74 33 43
- Marradun garajea saltzen dit Leku-Ederren it 943 74 43 98 (gauez)

Etxebizitzak

- Etxea behar dut alokairuan hartzeko. Premia handia daukat. v 943 74 12 21
- Kanpora ematen dnen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. Lau logela, sukaldea, saloi-jangela, bi bainugela eta patio-trasteroa. Oso handia da. tr 943 74 14 54 (gauez, 22:00-00:00).
- Pisua saltzen da Mendaron. 76 m2 ditu. tr 943 74 31 07
- Pisua behar dut sei hilabeteko alokairuan hartzeko, altzariekin bada hobe. 649 03 65 82 (Santi)
- Etxea saltzen da Sigman. Logela guztiek kanpora ematen dute. Egoera onean dago. tr- 943 74 25 36
- Santa Ana kalean etxea saltzen da. 2. pisua ganbara eta igogailuarekin. tr 943 74 03 83 943 74 18 34
- Pisua saltzen da, altzariekin eta berogailuarekin. v 943 74 18 20
- Lokala saltzen da Pedro Mugu-ruzan. 56 En2 ditu. tr 943 74 06 48
- Lokala saltzen da. Bulegoa, garajea, biltokia eta komuna ditu. te 943 74 14 23
- Etxebizitza salgai Errosario kalean. tr 943 74 17 95
- Apartamentua Itziarren salgai edo alokatzeko daukat. Itsasora begira, guztiz ekipatua. tr 943 19 22 65

Salerosketak

♦SALDU*

- Opel Corsa 1500 diesela salgai. SS AP. 80.000 km. Prezio onean. v 943 74 43 88 (Kristina, lanorduetan)
- Butanoko estufa saltzen dut v 943 74 23 90
- Golf GTI autoa saltzen dut. 6 urte ditu eta egoera onean dago. tr 648 77 17 32
- Silver Cross Bilbao modeloko kapotadun kotxea saltzen da osagarriekin. 943 74 37 82 (19:00etatik aurrera)
- Nissan Vanette saltzen da, NA-Z. Kanpinerako prestatua. Estrak barne. Prezio onean. v 943 60 45 31
- Tabako makina saltzen da. Merkea. a 943 74 00 38
- Renault Express 1600 diesel furgoneta salgai. NA-T. 325.000 pta. 943 74 32 83 (Marei)

OHARRA: MerkatuTxikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdla da.

Bestelakoak

- Caritas-ek bi ateko armairua eskaintzen du. tr 943 74 15 09
- Taberna traspasatzen da. tr 943 74 19 43 (Nekane)
- Urtarrilaren 19an sei harri dituen belarritakoa galdu nuen Andikano baserri-rik San Frantzisko kalera bitartean. 943 74 13 14 (Itziar)
- Arraza arrunteko katua oparitzen dut. te 943 74 05 62 (Almudena)
- Urtarrilaren 9an, arratsaldeko 19:00ak eta gaueko 12:00ak bitartean, tren geltokiko aparkalekuan, ibilgailu batek nire Peugeot 205 beltza jo zuen. Norbaitek zerbait ikusi bazuen deitu 943 74 39 13 zenbakira (arratsaltleko 20:30etik aurrera).
- Katu siamesa galdu dut. Lepokoa darama helbidearekin. Norbaitek aurkitu badu jo dezala Urasandira, 11. blokea, 51-3(Vicente).
- Pultsera galdu nuen Herriko Antzokian izan zen azken kontzertuan. Familiako oroigarria da. Norbaitek aurkitu badu dei dezala. Saritu egin-ga da. tr 943 74 05 20 (Mila)
- Abenduaren 21ean haur batek auto teledirijitu gorria galdu zuen Plaza Haundian. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala 943 74 09 86 telefonora.

- Lepoko foulard luzea galdu nuen Errege Egunean San Roke inguruan. Artilezkoa eta zetazkoa da, urdina eta marroia. Topatu duenak dei dezala 943 74 17 18ra.
- Betaurreko graduatuak gaidu nituen San Antolin eta Herriko Antzokiaren artean. Aurkitu badituzu deitu 943 74 31 99ra.

Agurrak

- Zorionak Pedro Urain! Zenbat bete zenituen otsailaren lean? Lara eta Aneren partez.
- Elgoibartik Jai-Alairaz zorionak tomatero. Piraguiaren familiaren partez.
- Zorionak Guruzneri eta Amaia-ri otsailaren lean eta 1ln urteak bete zituztelako. Lagunen partez.



• Zorionak Sarai. Zure urtebetetze egunean ondo pasatzea espero dugu. Gelako nesken partez. Kontuz palomitekin! Zorionak, baira ere, ahizpa Rocío, aita Pedro eta ama Juani- ren partez. Musu handi bat.

• Zorionak Nerea! Zer uste zenuen, ez gizona akordatuko? Miren, Janire eta Nereren partez.



• Zorionak Asierri hilaren 8an 7 urte beteko dituelako. Anderren eta familiaren partez.



• Zorionak Yolanda Munin-i otsailaren 8an 15 urte beteko dituelako. Gurasoen partez, egun zorionsua izan dezazula.



• Zorionak Alasne Urangari otsailaren 4an 12 urte bete zituelako. Lagunen partez. Zorionak zahartxo! Ezetz, txantxetan esan dudalal Zorionak Alazne otsailaren 4an 11 urte bete zenituelako. Ea asmatzen duzun nor naizen zahartxo!




• Zorionak Ainhoa Cantos-i urtarrilaren 31n 13 urte bete zituelako. Gurasoen eta anai-arreben partez. Epa Potxoli!

• Zorionak Arritxuri hilaren 4an 12 urte bete zituelako. Musu handi bat gurasoen eta Josu eta Larraitzen partez.



PILAR IKASTETXEA



tij-disf

Hazi eta hezi

2tik 1 G urtera

101

AURREMATRIKULA ZABALIK

otsailaren 2tik 12ra . 16:30etik 19:00etara

Urasandi kalea • Tel: 943 74 13 31 • Faxa: 943 74 41 00 • E-maila: nps42elg@planalfa.es

Laga ezazu aho-zabalik erregalu eder batekin **C** az2

Aranburu bitxidenda



Astigarraga loradenda



Iurrindegia



APRAIZ

Bazar desde 100



Iosu bitxidenda



Leizabe elektragailuak



Mimox loradenda



Muruamendiaraz gozotegia



PilxinlXu



alentin

gongiofa ezazu zure *bikotea*

gau zoragarri 6afera

ARBOLETA

Menu berezia
Entremes hotz eta beroak
Rapea labean erreta
Etxeko gozoak



Trinidad, 1 • Mendaro -Tel: 943 75 60 45

ATERPE



San Roke, 5 -Tel: 943 74 25 95

GABI

Berezitas unak
Entsalada hotz eta epelak
Bertako okela eta arraina
Etxeko gozoak



Natarroa enparantza .Tel: 943 74 12 30

HEMENDIK

Berezitasunak
Erretakoak
Kazulatoak
Ulagarroa



Pedro Muguruza, 20 -Tel: 943 74 25 00

LANDA

Sasoiko berezitasunak
Angulak
Legaiza txanpain erara



Garagarza, 32 Mendaro .Tel: 943 75 60 28

LUZAIDE

Berezitasunak
Arraina
Okela errea
Etxeko tartak



Mendarozahar z/g • Mendaro •Tel: 943 75 51 44

TXANALA

Berezitasunak
Txixarroa
Zapua
Sahleskia parrilan



Bainuetzeko Zumardia,5 • Aitzola-Tel: 943 74 43 46

TXARRIDUNA

Menu berezia
Irseskien entsalada I Tzangurro liajaldrea
Erreboiloa ada Entrekata
Etxeko tarra
Ardo bereziak



Ermuaranbide, 1 • Tel: 943 74 04 90

ZUBIA

Berezitasunak
Arraina eta okela errea
Bildotsa burduntzian



Bainuetzeko Zumardia, 2 . Altzida .Tel: 943 74 05 13

BIZITZEKO ERA BERRIA



M. (k) 4 zet. %
NA zigcl 11e-na
Maala

Estito berritzailea duen ingurua sortu nahi dugu. Gaur egungo bizitzeko erari konponbide berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu. Apartamentuak 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Terraza zabaleko duplex-ak etxebizitzak lorategiarekin. Garajeak • Trastelekuak eta saltokietarako lokalak.



Argibideak eta salmenta: obran bertan



943 74 24 00

Sustatzailea:

**MENDIBIL
ELGORR1AGA,
A.I.E.**

Eraikitzailea:

**WAIK
CONSTRUC~A ILS.A**